AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA SAILA

4297

AGINDUA, 2023ko irailaren 11koa, Hezkuntzako sailburuarena, sail honetan lanpostu bat izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdia ebazten duena.

Urtarrilaren 13ko 3/2009 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskaritzako lanpostuen zerrenda onartzen duenak, Hezkuntza Ikuskaritzako lurraldeburu lanpostua ezarri zuen. Lanpostu horren eginkizunak Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuaren 14. artikuluan daude jasota.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuaren 13.5 artikuluak xedatzen duenez, lurraldeburuak ikuskari nagusiaren mende egongo dira zuzenean, eta hezkuntza-arloan eskumena duen saileko titularrak izendatuko ditu, ikuskari nagusiak proposatuta, izendapen askeko prozeduraren bidez.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 102. eta 103. artikuluetan eta Hezkuntza sailburuaren 2023ko abuztuaren 23ko Aginduaren laugarren oinarrian agindutakoaren arabera (2023ko irailaren 1eko EHAA), sail honetan lanpostu bat izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdi publikoa iragartzen duen agindua, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– María Begoña Cabria Rueda andrea izendatzea Bizkaiko Ikuskaritzako lurraldeburu.

Bigarrena.– Izendapen horrek 2023ko irailaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 11.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.